

ISSN: 2530-6561
2017ko iraila
Bilbao

hegoak zabalduz

Hegoa, Nazioarteko
Lankidetzeta eta
Garapenari Buruzko
Ikasketa Institutua

Universidad del
País Vasco /
Euskal Herriko
Unibertsitatea
UPV/EHU

Garapenerako Lankidetzeta eta bere bilakaera

Irati Labaien Egiguren
Jorge Gutiérrez Goiria

Garapenerako Lankidetza eta bere bilakaera

Irati Labaien Egiguren

Ekonomia Aplikatua I Saila. Hegoa Institutua
Euskal Herriko Unibertsitatea UPV/EHU.

Jorge Gutiérrez Goiria

Finantza Ekonomia II Saila. Hegoa Institutua
Euskal Herriko Unibertsitatea UPV/EHU.

Aurkibidea

1. Sarrera	5
2. Sorrera eta lehenengo hamarkadak (1945-1980)	5
2.1. Sorrera, lehen garaia	6
2.2. Merkataritzari eta finantzazio sistemari loturiko lehen kritikak	8
2.3. Lehen diagnosis: pobrezia eta zeharkako gaien inguruko kezak	9
3. Globalizazioa eta garapenari buruzko zalantzak (1980-1995)	10
4. Laguntza ofizialaren berregituratzea eta pobrezia-aren agenda (1995-2015)	13
4.1. Milurteko Garapenerako Helburuak (MGH)	14
4.2. Garapenerako finantziazioa	14
4.3. Garapenerako Lankidetzaren kudeaketa eta agenteak	16
4.4. Milurteko agendaren inguruko kritikak	17
5. Laguntzaz harago: 2030 agenda eta helburu berriak (2015-...)	19
5.1. Nazioarteko testuinguru berria	19
5.2. Lankidetza sistema eta eragile berriak	20
5.3. 2030 Agenda eta Garapenerako Helburu Iraunkorrak	21
5.4. Garapenerako Politiken Koherentzia: agenda berria garatzeko ezinbestekoa	23
5.5. Lankidetzaren etorkizuna: laguntzaz harago	24
Bibliografia	25

Erredakzio kontseilua

Zuzendaritza: Xabier Gainza
Irati Labaien

Kideak: Eduardo Bidaurratzaga
Iker Etxano
Mertxe Larrañaga
Elena Martínez Tola
Mikel Zurbano

hegoak zabalduz euskarazko material bildumak ikuspegi zabal batetik garapenarekin lotutako askotariko gaiak jorratzea du helburu. Testuak didaktikoak eta dibulgazio mailakoak dira, eta gaien inguruko sarrera edo ikuspegi orokorra ematen dute.

[Garapenerako Lankidetzeta eta bere bilakaera](#)

Egileak: Irati Labaien Egiguren, Jorge Gutiérrez Goiria

hegoak zabalduz - 4. zk. 2017 iraila

ISSN: 2530-6561



www.hegoa.ehu.eus

UPV/EHU. Zubiria Etxea
Lehendakari Agirre Etorbidea, 81
48015 Bilbao

Tel.: 94 601 70 91
Faxa: 94 601 70 40
hegoa@ehu.eus

UPV/EHU. Carlos Santamaría Zentroa
Elhuyar Plaza, 2
20018 Donostia-San Sebastián

Tel. 943 01 74 64
Faxa: 94 601 70 40
hegoa@ehu.eus

UPV/EHU. Arabako Campuseko Liburutegia

138. posta-kutxa
Nieves Cano, 33
01006 Vitoria-Gasteiz

Tel. / Faxa: 945 01 42 87
hegoa@ehu.eus

Diseinua eta Maketazioa: Marra, s.l.

hegoak zabalduz material bilduman argitaratzen diren testu guztiak, Creative Commons en lizentzia honekin argitaratzen dira:



Reconocimiento-NoComercial-SinObraDerivada 3.0 España.

Lizentzia osoa:

<http://creativecommons.org/licenses/by-nc-nd/3.0/es/>

Finantzatzailea:



Gipuzkoako Foru Aldundia
Kultura, Turismo, Gazteria eta Kirol Departamentua
Departamento de Cultura, Turismo, Juventud y Deportes

Laburpena: Artikulu honek, Garapenerako Lankidetzaren politiken azken hamarkadetako bilakaera azaltzea du helburu. Bilakaera hau ulertu ahal izateko, kontuan hartu diren gaien artean, aipagarriak dira besteak beste: garapeneraren inguruko debateetan izan diren aldaketak, nazioartean emandako aldaketa ekonomiko, sozial eta politikoen Garapenerako Lankidetzaren politiketan izandako eragina, edota lankidetzako agenteen inguruko errepasoak. Bilakaera honen azterketa amaitzeko, 2015ean argitaratu ziren Garapenerako Helburu Iraunkorrek plazaratu dituzten erronka berriak ere aztergai izan dira. Izan ere, testuan zehar aipatzen denez, Garapenerako Lankidetzaren politikak hasieran laguntzan oinarritzen baziren ere, ikuspegi orokorrago eta zabalago baterantz abiatzeko beharra agerian geratu da, garapenera benetako aurrerapausoak lortu nahi badira bederen.

Gako-hitzak: Garapenerako Lankidetzaren, Garapenera, Garapenerako Helburu Iraunkorrak, Garapenerako Politiken Koherentzia.

Abstract: This article aims to explain the evolution of Development Cooperation policies in the last decades. Among several issues, these are some of the important ones that have been included in order to understand this evolution: changes in the debates on the concept of development; the impact of economic, social and political changes at an international level on these policies; or the issue about the actors participating in them. In order to complete this analysis, the challenges that have emerged since the publication of the Sustainable Development Objectives in 2015 have also been taken into account. As noted in the text, despite the fact that at the outset Development Cooperation policies focused on aid, the importance of addressing the issue from a broader perspective is taking strength.

Keywords: Development Co-operation, Development, Sustainable Development Goals, Policy Coherence for Development.

1. Sarrera

Testu honen helburu nagusia Garapenerako Lankidetzaren bilakaera azaltzea da, 1940ko hamarkadan hasi zirenetik, 2015. urtean Nazio Batuen Erakundeak argitaratu zituen Garapen Helburu Iraunkorrek egungo testuinguruan sortu dituzten erronka berrietara.

Garapenerako Lankidetzaren sortu zenean, ikuspegi zehatz batean oinarritu zen: Iparraldeko herrialdeek Hegoaldearen garapenerako eman behar zuten laguntzan, hain zuzen ere. Ideia hau ardatz izanik, aurrera eramandako jardueren mota guztietako interesak nahastu dituzte: humanistak alde batetik, baina baita geostrategikoak, merkataritzakoak eta bestelakoak ere; guztiak izan dira errealitatearen zati azken hamarkada hauetan.

Ondorengo ataletan ikusiko den moduan, lehen hastapenetan eraiki zen lankidetzaren sistema, jardueren multilateraletan (Mundu Bankua, Nazio Batuen Erakundearen Garapenerako Programa...) eta bilateraletan (zuzenean estatuen artean egindakoa) oinarritu zen. Honetaz aparte, urteak aurrera egin ahala, hainbat eragile gehitzen joan dira lankidetzaren eremura, besteak beste: gizarte zibila (Garapenerako Gobernuaren Kanpoko Erakundeak batez ere), tokiko erakunde publikoak, eta enpresak. Honekin batera, fokatzeko eta perspektiba desberdinak aurki daitezke eragile bakoitzaren proiektu eta ekimenetan.

Denbora aurrera joan ahala, mundu mailan dauden eragileen papera aldatuz joan da (estatuak orain arte izandako nagusitasuna, esaterako, globalizazioaren prozesuek ez ezik, enpresa transnazionalen dinamikek ere kolokan jarri dute). Garapenerako buruzko ideiak ere eraldatu egin dira; honela, orain arte ezagututako herrialde garatu eta ez-garatuak osatutako sailkapenak zentzua galdu du. Egun, mundu mailako edozein herrialdean, garapenerako lotutako hainbat arazo topa daitezke, eta nazioarteko elkartasuna behar-beharrezkoa bada ere, beste birplanteamendu orokorrako batzuk ere kontuan hartu beharko lirateke. Gabeziei eta pobrezari lotutako arazoak ukatu gabe, giza eskubideak, ingurugiroa eta nazioarteko finantza edo merkataritza arloetan lan egitearen garrantzia begi-bistakoa da, gobernantza global baterantz abiatu nahi bada bederen.

Hori guztia kontuan hartuta, eta Garapenerako Lankidetzaren bilakaera ikusita, azken honek hartzen duen esparrua zabaltzeko beharra azaldu da hainbatetan. Honekin batera, lankidetzaren sistemak berak dakartzan inertziek eta interes kontrajarriek, Garapenerako Lankidetzaren egon daitezkeen berrikuntza eta aldaketak geldiarazten dituzte ere berean. Egun, garapeneraren inguruko debate eta hausnarketek, laguntza kontzeptutik –eta baita lankidetzaren kontzeptutik ere– harago joan beharko litzatekeela nabarmentzen dute. Nolabait, garapeneraren eredu eta politikak herrialde guztietan aztertuz eta globalizazioak ekarri dituen elkarrekiko hartu-emanak kontuan hartuta.

Politika hauen bilakaera hobeto ulertu ahal izateko, lau atal desberdinetan banatu da testua. Sarrera ostean, bigarren atalean, hastapenen zergatiak azaltzen dira, Garapenerako Lankidetzaren sorreraren testuingurua, hain zuzen ere. Hirugarren atalean, politika hauen inguruan sortu ziren lehenbiziko zalantzak aurkeztuko dira, kanpo zorraren krisia eta globalizazioaren lehen garaian. Laugarren atalean, 90eko hamarkadan zehar hasitako Laguntza Ofiziala, Agendaren berregituraketa eta Milurteko Garapenerako Helburuak aztertuko dira. Azkenik, azken hamarkadan lankidetzaren izandako aldaketak, eta Garapenerako Helburu Iraunkorren argitalpenak mahaigaineratu dituen desafioak izango ditugu aztergai.

2. Sorrera eta lehenengo hamarkadak (1945-1980)

Garapenerako Lankidetzaren hastapena, 40ko hamarkadaren erdian hasi zen. Urteak aurrera egin ahala, bai kontestu sozial, ekonomiko eta politikoak, bai Garapenerako Lankidetzaren sustatzeko oinarriak eta aurrera eramandako jardueren izan zituzten lehen emaitzen ondorioek, fenomeno honen ikusmoldeak aldatuz joan ziren.

Oro har, Garapenerako Lankidetzaren hastapena hiru etapetan bana daiteke: alde batetik, lehen aroa izango genuke, hau da, Garapenerako Lankidetzaren hasiera eragingo zuen Bigarren Mundu Gerra osteko

testuingurua; bigarrenik, gerra osteko lehen aro haren ondoren sortu ziren lehen hausnarketak izango genituzke, eta, azkenik, hausnarketa berri horiez gain, gaur egun zeharkako deritzen gaien lehen debateak ere sortu ziren, besteak beste, ingurugiroaren eta generoaren inguruko lehen ideiak azaleratu ziren.

2.1. Sorrera, lehen garaia

Aurrez aipatu den moduan, Garapenerako Lankidetzaren sorrera, historiako une zehatz batean kokatzen da. Alde batetik, Bigarren Mundu Gerraren ondotik etorri ziren bi blokeen arteko mesfidantzaren testuinguruan, Europaren berregituraketa prozesuaren baitan zegoen. Beste alde batetik, ikuspegi politikoan ere, bazterrean utz ezin daitezkeen deskolonizazio prozesuak zeuden.

Egoera politiko honi jarraiki, kontzeptu berrien sorrera ere etorri zen. Aurrez aipatutako bloke kapitalista eta sozialisten izateak hirugarren mundua zeritzonaren sorrera ekarri zuen. Garaiko egoera ekonomikoan oinarriturik, herrialdeen arteko desberdintasunak azpimarragarriak ziren, eta desoreka horietan errotutako saillkapenaren azken postuek bistan utzi zituzten hirugarren mundu hau osatzen zuten lurralde txiroak. Nabarmentzekoa da, herrialde bakoitzaren aberastasunaren adierazle gisa Barne Produktu Gordina (BPG) erabiltzen zela eta, beraz, neurketa hau ikuspegi bakarrekoa zen, ekonomikoa, hain zuzen ere.

Ikuspegi honek, munduaren dikotomia islatzen zuen. Alde batetik, garatuak zeritzen lurraldeak zeuden, lurralde industrializatuak oro har, BPG per capita maila altuekin, ekoizpen ahalmen handiarekin, eta esportatzeko gaitasunarekin, besteak beste. Eta bestetik, garatu gabeko edo azpigaratuak zeritzen lurraldeak zeuden. Azken horiek ezaugarri amankomun ugari zituzten: nekazaritzan oinarritutako ekonomiak ziren, teknologikoki garapen eskasa zutenak, produktibitate baxua orotara, eta nazioarteko merkataritzan jarduteko ahalmen kaskarra zuten orokorrean (Unceta eta Yoldi, 2000).

Garapenerako Lankidetzaren hasierako helburua herrialde azpigaratu deiturikoen produktibitatea areagotzeko fluxu ekonomikoak bidaltzea izan zen. Halarik ere, hori ez zen modu bakar batean egin, eta tresna desberdinak erabili ziren helburu hori aurrera eraman ahal izateko.

Lehenik eta behin, iparraldeko hainbat herrialdek hirugarren mundua osatzen zuten herrietara bidalitako diru-laguntza fluxuak aipa genitzake, edota Garapenerako Laguntza Ofiziala (GLO) zeritzona, beste modu batera esanda. GLO hori, iparraldeko herrialde batetik, hegoaldeko herrialde batera modu zuzenean transferi zitekeen; horretarako, Garapenerako Lankidetzaren sistema osatuko zuten gobernuen Lankidetzarako agentzia berriak sortu ziren. Bestalde, iparraldeko herrialdeek, fluxu ekonomikoak nazioarteko agentzien bidez ere transferitzen zituzten. Testuinguru horretan beraz, nazioarteko erakunde eta agentzia adierazgarrienak sortu ziren. Esaterako: Mundu Bankua (MB), Nazio Batuen Erakundea (NBE), edota Ekonomia Lankidetzaren eta Garapenerako Antolakundeko (ELGA) zati zen *Garapenerako Laguntza Batzordea* (GLB).

1. T aua. Garapenerako Laguntza Ofiziala, bideratzeko eraren arabera.

Multilateralak: emailek Nazioarteko Erakundeei (Nazio Batuak, Munduko Bankua, Nazio Batuen Garapen Programa...) ematen dietena, haien jarduerak burutzeko.

Bilateralak: emailek bere funtsen helbidea aukeratzen dute. Emaile eta Hartzailearen arteko harremana zuzena da (Garapenerako Agentziek edo beste erakunde batzuen bidez).

Multilateralak: azken urteotan beste modu batzuk garatu dira Laguntza kudeatzeko. Batzuetan, Laguntza Nazioarteko Erakundeen bidez kudeatzen da, baina emaileak aukeratzen ditu lekua edota helburua.

Iturria: norberak egina.


Laguntza bilateralaz eta multilateralaz gain, aipagarria da beste saillkapen bat: lotutako GLO eta lotu gabeko GLO. Lehenak, emandako laguntza nolabait baldintzazapetua dagoela adierazten du. Esaterako, jasoko den laguntza neurri batean herrialde emailearen produktuak edo zerbitzuak ordaintzera bideratzen delako.

Laguntza mota honek kritikak jaso ditu, interesak nahastu daitezkeelako, eta eraginkortasuna galtzeko arriskua dagoelako.

Bestetik, aipatu beharra dago GLO guztia ez dela dohaintza moduan eskaintzen. Merkatukoak baino baldintza hobeetan emandako maileguak ere GLOtzat hartzen dira. Horren ondorioz, laguntza gordina eta laguntza garbia ere bereizi beharko lirateke. GLO Gordinak emaleak bideratutako fluxuak hartzen ditu kontuan, itzulketak kontuan hartu gabe. GLO Garbia, berriz, irtendako fluxuei bueltan jasotakoa kenduz kalkulatzen da, ahaleginaren irudi erreala goa emanez.

Garapenerako Lankidetzaren lehen hastapen haietan beraz, Estatueta ko garapenerako agentziek eta nazioarteko agentziek zuzentzen zituzten fluxu ofizial horiek guztiak, hegoaldeko lurraldeetara bideratzen zituzten jarduera desberdinak helburu zituztela. Helburu horiek, sektore anitzetara zuzentzen zituzten. *Garapenerako Laguntza Batzordeak* (GLB) sektore desberdinen sailkapen bat egin zuen, eta agentzia askok sailkapen hau erabiltzen dute oraindik ere.

Garapenerako Laguntza Ofizialez aparte, kanpoko fluxuak bideratzeko modu desberdinak hasi ziren lehen hamarkada haietan. Lurralde azpigaratu zeritzenetara bideratutako fluxuak publikoak ziren batez ere, baina bestelako bideak ere garatzen ari ziren. Horri jarraiki, Kanpoko Inbertsio Zuzena (KIZ) garapen bidean zeuden herrialdeen garapena lortzeko tresna moduan ere erabili zen; nahiz eta bide hau ez zen hasieran behinik behin aukera errealisten artean egon. 1 irudiak, Kanpoko Inbertsio Zuzenak lehen hamarkada haietan ekarri zuen fluxu kantitatea adierazten du. Ikusten denez, fluxu guztien zati txiki bat zen.



Iturria: norberak moldatua Pearsonen Txostenetik (1969).

Lehen hamarkada haietan egin zen diagnosiak, hau da, garatu eta azpigaratu kontzeptuen dikotomia hark, garapena ulertzeko modu bakarra zuen erroan, eta ondorioz, Garapenerako Lankidetzaren politika zehatzak sustatu ziren. Ekonomiaren ardatza harturik, eta aurrerapen teknologikoaren laguntzaz, herrialde orok garatzeko bidea hartuko zukeen. Formula matematiko bat balitz bezala, helburu berdina bat lortzeko bidea zehaztu zuten, bide lineal bat, non hasiera eta helmuga homogeneikoki hitzartuak zeuden.

Azkenik, lehen hamarkada horietatik aurrera Garapenerako Gobernu Kanpoko Erakundeek (GGKE) izan zuten rola aipatzekoa da. Nahiz eta berez ofizialak ez izan (hauen funtsak, pribatuak direnean behintzat, ez dira islatuko Laguntza Ofizialaren estatistiketan), horien jarduerak eta helburuak antzekoak izan dira askotan, eta, ikusiko dugunez, lankidetzako hainbat forotan beraien garrantzia nabarmena izan da. Erakunde hauek oso anitzak dira (arloan batean espezializatuak, arlo anitzetara zuzentzen direnak, konfesionalak, ez konfesionalak...), eta ekintzak ere oso desberdinak izan daitezke kasuen arabera. Orokorrean, oinarritzko zerbitzu sozialetan eta egituretan lan egiten dute, populaziotik oso gertu. Beste ikuspegi eraldatzaile eta ez-ofiziala ere osatzen dute hainbat kasutan. Denborarekin, euren egiturek eta proiektuek profesionaltasun maila altuagoa lortu dute, eta askotan gobernuen funtsak ere kudeatzen dituzte bitartekari edo bideratzaile moduan.

2.2. Merkataritzari eta finantzazio sistemari loturiko lehen kritikak

Hala ere, lehen kritikek ez zuten itzalean gehiegi iraun. Garapenerako Lankidetzako sistema osatzen zihuan heinean, lehen oztupoak agertzen hasi ziren. Independentzia lortu zuten hainbat herrialdek, benetako independentzia ekonomikoaren nahia eskatu zuten, hots, herrialde garatuek sustatzen zuten merkataritza sistemak beraien egoera betikotu egiten zuela salatu zuten; modu horretan, merkataritza sistema hegemonikoak itzalean gordetzen zituen disparekotasunak plazaratu nahi izan zituzten (Sutcliffe, 2008).

Merkataritzari eta finantzaketa sistema bidegabeari kateatutako uste haiek, lurralde azpigaratu zeritzenetatik etorri ziren bereziki. Aipatzekoa da 1955ean egin zen Bandungeko konferentzia Afroasiarra; bertan, independentizatu berri ziren hainbat herrialdek parte hartu zuten, eta helburu nagusi moduan, kontinente honetako lankidetzako ekonomikoaren sustatzeko nahia azaldu zuten. Lehen ideia haiek aditzera eman zuten, esaterako, azpigaratuak zeuden hegoaldeko lurralde haien egoeraren zioa, hein handi batean, nazioarteko merkataritza sistema beraren logikan zegoela. Hegoaldeko lurraldeak orokorki lehengaien nazioartekotzean oinarriturik zeuden, eta lehengai horien artean ordaintzen zen prezio bidegabeak lurralde horiek txirotasun ekonomikora kondenatzen zituen. Azpimarragarria da zentzu honetan *Merkataritza eta Garapenari buruzko Nazio Batuen Konferentziaren* (ingelesez *United Nations Conference on Trade and Development: UNCTAD*) sorrera, zeinaren helburuen artean, garapen bidean zeuden lurraldeen merkataritza eta inbertsioak handitzea izan zen, baita horiek mundu ekonomikoan txertatzeko laguntzak ematea ere.

Aurreko ideien harira, nabarmentzekoa da 60ko hamarkadan indarra hartzen hasi zen dependentziaren teoria. Gogoeta horren sortzaileen ustez (estrukturalistak eta marxistak), garatuak zeritzen lurraldeen eta azpigaratuak zeritzenen arteko nazioarteko merkataritzak, azken hauen dependentzia sortu eta mantentzen zuten. Iparraldeko lurraldeak zentroko gune moduan identifikatu ziren, eta hegoaldekoak orokorrean, periferia osatuko zuten. Modu horretan, zentroko lurraldeek periferiaren beharra zuten gune horretan mantentzeko, eta alderantziz. Batak bestea elikatzen zuten nolabait.

Dependentziaren teoria honek hankaz gora jartzen zuen hasiera batean planteatu zen garapenaren ideia lineala. Hau da, herrialde guztiek ezingo zuketuen garapen maila berdinerara iritsi, izan ere, garapenak berekin baitzekarren azpigarapena, txanpon beraren bi aldeak izaki.

Aipaturiko kritikez gain, garai horretan, kolonizazioaren petik independentziarako bidea egin zuen hainbat lurraldek. Trantsizio egoera horretan, zaila gertatu zitzaion hainbati kolonialismoaren atzaparretatik alde egitea, eta independentizatu berri ziren lurralde asko, demokraziatik urrun geratzen ziren eta autoritarismoetara gehiago hurbiltzen ziren gobernu ereduak eratu zituzten. Gainera, Garapenerako Lankidetzako fluxu ekonomikoak zuzentzen ziren herrialdeetan helburu geostrategikoak zeudena zirudien. Finean, ofizialki independenteak izan arren, praktikan, kanpo interesetara men egingo zuten aliatuak aukeratzen ziren. Honek zaurgarritasun egoerara kondenatzen zituen hegoaldeko lurralde horiek (Unceta eta Yoldi, 2000).

Merkataritzari eta finantzazio sistemari loturiko lehen kritika haiek, ez bairik gabe, eragina izan zuten Garapenerako Lankidetzako sistemaren oinarritzko helburuak ulertzeko orduan, eta helburu horiek nolabait

kolokan jarri ziren. Dena dela, kritika horiez gain, aipagarriak dira lehen hamarkada haietan sortu ziren bestelako debateak ere, zeinak ondorengo azpiatalean garatuko diren.

2.3. Lehen diagnosis: pobrezia eta zeharkako gaien inguruko kezkek

Nazioarteko merkataritza sistema, herrialde desberdinen bilakaera azaltzeko orduan elementu garrantzitsua da inondik ere. Dena dela, herrialdeen arteko desberdintasunen oinarrian egon litezkeen bestelako gaiak ere azaleratzen hasi ziren 60 eta 70ko hamarkadetan. Garai horretan hasi ziren adibidez, gaur egun zeharkako deritzen ingurumenaren zaintza, genero berdintasuna, edota pobreziaaren kontrako hausnarketak egiten.

Laguntza ebaluatzeko argitaratu ziren lehen lanek bistaratu zuten besteak beste, Garapenerako Lankidetzaren sistemak ekonomiaren hazkundea bultzatzea helburu zuten mekanismo edo tresnek ez zutela azpigaratu zeritzen herrialdeetan esperotako ondorioz izan; nolabait, eragina eskasa izan zela alegia. Hau da, ekonomiaren hazkundeak ez zuen zertan herrialde bateko biztanleria osoan zehar eragin positiborik izan, eta nolabait, pobreziaaren tasak ez ziren nahi adina gutxitu. Are gehiago, lehen zantziek aditzera eman zuten, herrialdeen arteko disparekotasuna ez ezik herrialdeen barneko disparekotasunak berdin mantendu zirela kasu batzuetan, eta gehitu, besteetan. Hausnarketa haietatik oinarritzko beharrezan gaia azaleratu zen.

Disparekotasunaren gaiaz gain, ingurugiroarekiko arduraren handitzea zen garai hartan. Martxan zen sistema ekonomikoak beharrezan mugagabeetan oinarritzen zen ekoizpena bultzatzen zuen, baliabide naturalak mugatuak zirenean ideia bazterrean utzita. 1972an argitaratu zen Meadows txostenak hazkunde ekonomikoak mugarriak izan bazituela azaldu zuen. Txosten horrek, ordura arteko ekoizpen prozesuek eta industrializazio bortitzak ingurugirotik jasotako baliabideen gehiegizko ustiapena sustatzea ez ezik, kutsaduraren arazoa ere eragiten zuela plazaratu zuen. Argitalpen horrek, Lurra ekoizpen maila hori jasateko ahalmen eza nabarmendu nahi izan zuen.

Gainera, GLOak arazo berriei aurre egin behar izan zien, eta gainera, bere helburuak lortzeko egiturazko oztopoak ere nagusitzen hasi ziren. Pearson Txostena erreferentziazko argitalpena izan zen gai horien inguruan. 1969an argitaratu zen, eta, besteak beste, laguntzaren fluxu sistemaren berregituraketaren beharra azaldu zuen. Horrekin ez zuen Garapenerako Lankidetzaren garrantzia ukatu nahi, baina laguntzaren eraginkortasunaren gaiaren inportantzia lehendabizikoz plazaratu zen, eta, hartara, kopuruarekin batera, fluxuak nola ematen ziren ere garrantzitsua zela adierazi zuen. Gainera, azken hamarkadetan hainbeste oihartzun izan duen %0,7aren gaia ere Txosten horretan biltzen zen ideiatik abiarazi zen, hots, GLO indartze aldera, hainbat estatuk euren Nazio Produktu Gordinaren (NPG) %0,7 garapen bidean zeuden lurraldeei laguntzeko fluxuetara dedikatzea zuen xedea. Azkenik, txosten horretan azpimarragarria da ordura arte eratzeko joan zen Garapenerako Lankidetzaren sistema paraleloan zihoan merkataritza sistemarekin erabat kontrajarria zegoela adierazten zuen ideia. Garapena helburu zuten estrategia desberdinen artean, koherentzia eza zegoela plazaratu zen.


Txosten horrek plazaratu zituen erronkez gain, garapen ekonomikoan soilik fokaturik zegoen hasierako ikuspegiaren kontrari, oinarritzko beharrezan ikuspegiak lehenbizikoz indarra hartu zuen, nolabait, ikuspegi gizatiar baten bidea, hain zuzen ere. Hausnarketa bide berri hau, Mundu Bankuak ere onartu zuen, eta besteak beste, nekazaritza garapena, lan-baldintzak, hezkuntza, edota osasuna bezalako gogoetak barneratzen zituen.

Pobreziaaren gaiari erabat loturik, generoaren ikuspegitik ere etorri ziren hainbat kritika. Martxan jarri ziren fluxu ekonomiko gehienek gizonek zuzendutako (edo gizonen onurarako izango ziren) ekoizpen jarduerak sustatzea zuten helburu; askotan, emakumeak euren eginkizun tradizionalak kateatzen zituzten laguntza zeritzen haiek. Hau da, estrategia gehienak emakumezkoen ohiko jardueretara egokitzen ziren: bai zaintzara eta baita arlo erreproduktiboan zituzten gabeziaren aurrean laguntza ematera ere. Honen aurrean, 70eko hamarkadan, ordura arte emandako garapenerako kontzeptuak eta bere bideak, emakumearen nolabaiteko bazterketa ekarri zutela aditzera eman zuten mugimendu feministek, eta *Emakumeak Garapenean* enfoke

berria sortu zen, zeinak emakumeak ekoizpen jardueren prozesuen protagonista zirela aldarrikatzen zuen. Nolabait, emakumeen eskubide zibilak eta politikoak aldarrikatzeko ahotsak zutik jarri ziren.

Lehenengo hamarkada horien amaiera, beraz, analisisetan topatutako arazoengatik eta zeharkako lerroek islatzen zuten gabeziengatik markatuta egon zen.

Beranduago eztanda egingo zuen egoera larri bat gehitu behar zitzairen arazo horiei: kanpo finantziazioaren ondorioei loturikoa, hain zuzen ere. Hasiera batean positibotzat jo bazen ere, kanpo finantziazioaren arriskuak agerian geratzen hasi ziren. Alde batetik, funts pribatuak (maileguak batez ere) geroz eta pisu gehiago hartzen ari ziren. Bestetik, kanpo merkataritzaren aipatutako egoerak kanpo-defizit jarraituak eragin zituen hainbat herrialdetan. Horren guztiaren ondorioz, hegoaldeko lurraldeen kanpo zorra handitzearekin batera, ordaindu beharreko zerbitzua ere gehituz zihoan (maileguen interesak gehi printzipala). Hortik gutxira, ordainketa horiek guztiak laguntza moduan heltzen zen kopurua baino handiagoak izango ziren (ikus 2. irudia).




Iturria: norberak egina Mundu Bankuko datuetatik.

3. Globalizazioa eta garapenari buruzko zalantzak (1980-1995)

70eko hamarkadan zehar, hegoaldeko hainbat lurralderen zorpetze mailak gorakada izan zuen. Alde batetik, banku pribatuek inbertitzeko diru funts handiak zituzten, eta, bestetik, egoera larrian zeuden hainbat hegoaldeko herrialdek fluxu finantzarioen beharra zuen. Egoera horiek medio, lurralde horien arteko adostasuna erraztu zen nolabait, eta maileguak errazago bideratu ziren. 3. irudian ikusten denez, kanpo zorraren hazkundea arazo bihurtu zen hamarkada hartatik aurrera.

3. Irudia: Errenta ertain eta baxuko herrialdeen Kanpo Zorra guztira (milioi dolarretan)




Iturria: norberak egina Mundu Bankuko datuetatik.

1982. urtean zorraren krisiaren zantzuak atzematen hasi ziren, 70eko hamarkadan zehar zorpetzen joan ziren hegoaldeko lurraldeen kaltetan. Alde batetik, ordura arte, zorraren krisia pairatzen ari ziren lurraldeetara zuzenduriko fluxuak, krisi horretan sarturik ez zeuden besteetara aldatzen hasi ziren, nolabait, finantzatzaileek beraien fluxuen norabidea aldatu zuten. Beste alde batetik, nazioarteko finantziario pribatuetatik zetozen maileguetan, aurrez zehaztu ziren baldintzak aldatu egin ziren, eta Latinoamerikako eta Afrikako hainbat lurraldetako zorrak gorantz egin zuen esponentzialki. Gehiegizko zorpetzea zuten herrialdeek hondoa jo zuten, eta euren egoera ekonomiko eta sozialak izugarri okertu ziren.

Egoera horren aurrean, zorpetze maila altuak zituzten lurraldeek zorraren negoziaketa jarduerak hasi zituzten Nazioarteko Moneta Fondoarekin (NMF), baita Mundu Bankuarekin (MB) ere. Azken horiek, zorraren baldintzak negoziatzearen ordainetan, doikuntza-politikak sustatzera baldintzatzen zituzten neurriak eskaini zizkieten. Doikuntza politika horien oinarrian, erakunde publikoen parte-hartzearen gutxitzea zegoen eta, aldi berean, sektore pribatuaren jardueren sustapena, hots, lurralde horietako gobernuek egin ezin zezaketena, merkatuaren eskuetan uztearen aldeko apustua egin zezaten nahi zuten. Bi erakunde horiek bultzatu zituzten programak (Egiturazko Doikuntza-Planak) lankidetzako politika eredugarri moduan proposatu ziren, nahiz eta arazo sozialak areagotu ziren hainbat herrialdetan. Programa horien porrotek, beste arrazoi batzuen artean, lankidetzan geroago izan ziren aldaketa nabarmenak azaltzen dituzte neurri batean.

90eko hamarkadan sartuta, Garapenerako Lankidetzaren sistemaren sorreratik 40 urte pasatu ziren ordurako, eta urte haietan guztietan hegoaldeko lurraldeei zuzendutako fluxu ekonomiko guztia kontuan harturik, lehen zantzuak emaitza gutxi izan zirela adierazi zuten. Gaur egun, garai honi, laguntzaren unaduraren aroa ere deitu izan zaio. Hamarkada horretan zehar, fluxu ekonomikoek, oro har, ez zuten igoerarik izan termino konstanteetan (ikus 4. irudia). Garapenerako Lankidetzaren aro horretan, fluxuen jaitsiera, kritika ugarirekin batera etorri zen: alde batetik, pentsamendu eskuindarretik zetozen kritikek Garapenerako Lankidetzaren asistentzialista zela esaten zuten, eta merkatua bera disparkotasunak orekatzeko mekanismo moduan ikusten zuten; bestalde, ezker aldetik ere kontrako iritziak izan ziren: lurralde desberdinen arteko disparkotasunen erantzunak sistema sozioekonomikoaren aldaketa estrukturala eskatzen zuela zeritzen, eta, beraz, Garapenerako Lankidetzaren ez zen nahikoa.

4. Irudia: Garapenerako Laguntza Ofiziala 1970-1995 (2013ko milioi dolar konstanteetan)



Iturria: norberak egina Mundu Bankuko datuetatik.

Aurreko atalean aipatu den legez, Garapenerako Lankidetzaren sistema gerra hotzaren osteko bi blokeen baitan eraiki zen. Lankidetzari eskainitako fluxu estrategiak bloke bakoitzaren barruan egon zitezkeen herrialdeak babesteko modua zen. 40 urteren ostean, aitzitik, eta bi bloke horien desagertzearen ondoren, nazioarteko testuinguruaren aldaketa etorri zen, eta, ondorioz, Garapenerako Lankidetzaren estrategiaren aldaketa ere bai. Batzuen ustez, interes geopolitikoak aldatzearekin batera, Garapenerako Lankidetzaren zentzua ere aldatu zen; beste hainbatek aitzitik, egoera berri honek, interes hauetatik at zeuden bestelako bide berriak ireki zitzaizkela uste zuen.

Gainera, hamarkada horretan, globalizazioaren oinarri den merkatu-irekiera gertatu zen. Hau da, herrialde desberdinek merkatu globalaren alde estatu kontrolak kentzearen aldeko apustua egin zuten. Merkatu bateratuak, nolabait, herrialdeen arteko dependentzia egoera bultzatu zuen; beste nolabait esanda, merkatu globalaren nagusitasunak, estatuaren indarrak gutxitzea ekarri zuen berekin. Nazioarteko egoera horren aurrean, bi ikuspegi kontrajarri bereiz zitezkeen: alde batetik, merkatu global hori aberastasuna birbanatzeko tresna moduan ikustea, eta, beraz, Garapenerako Lankidetzaren logikatik ateratzeko beharra; beste alde batetik, ordea, merkatuaren askatasun honek, bai herrialde desberdinen arteko, bai herrialde barneko disparekotasunak areagotzen zituen ustea ere bazegoen.

Aurreko kritikez gain, nazioarte mailan ordura arte egon zen erregulazio eskasa ere azpimarratu zen garai hartan. Estatu mugak gainditzen zituzten ondare publiko globalen (edota alderantziz ere izan zitezkeen moduan, galera publiko globalen) kasua nabarmentzekoa zen. Hauek, mugarririk gabe, onurak edo kalteak eragin zitzaizketen, eta horiek erregulatzeko neurririk ez zegoen. Esaterako, merkataritza globalak, edota kapitalen mugimendu askean errotutako finantza globalak sor zitzaizketen ziurgabetasun eta desberdintasunen aurrean, nazioartean banaketa ekitatiboaren aldeko neurririk ezin zen hartu, estatu mailan egon zitezkeenaren kontrari. Ingurumenarekin loturik zeuden kasuak ere hor zeuden: klima-aldaketa, bioaniztasunaren zaintza, edota ozeanoen kudeaketa bezalako gaiak erantzun globalen beharra zutenaren adierazpenak geroz eta oihartzun handiagoa hartzen hasi ziren. Oihartzun horiek guztiak 1987. urtean NBEk argitaratu zuen Brundtlan Txostenaren ondorenak izan ziren. Txosten horrek, lehenengoz, Garapen Iraunkorraren inguruan proposamenak egin zituen. Ingurumenak gizabanakoen ongizatean zuen garrantzia kontuan hartuta, besteak beste, ekosistemen kontserbazioan, planetaren zaintzan, eta gehiegizko kontsumoan arreta gehiago jartzeko beharrak planteatu zituen. Arazo eta egoera horien guztien aurrean, Nazioarteko Lankidetzaren laguntza kontzeptu hutsa baino gehiago hartuko luke bere baitan.

Aro berri horretan gainera, garapenaren kontzeptuen eraldaketa ere etorri zen. Garapenerako Lankidetzaren sortu zenean, aurrez aipatu moduan, gizarte desberdinen garapena ekoizpen ekonomikoaren hazkundearekin batera etorriko zela sinisten zen. Nolabait, garapena ekoizpen materialek baldintzatzen zutelako uste zen, gizarte desberdinen arteko dikotomia garbia bereiziz: lurralde garatuak eta lurralde azpigaratuak. Gainera, azpigaratuak zeritzen herrialde guztietan, formula berdina aplikatuz, emaitza berberak emango zituela aurreikusi zen, denek ezaugarri berdinak izango balituzte bezala.

90eko hamarkadarekin batera, garapenaren ikuspegi berriak etorri ziren, oinarri gizatiarragoi lotuta eta ez hainbeste oinarri ekonomikoari. Kontzeptuaren berrikuntzak herrialde azpigaratuaren aniztasuna ere kontuan hartu zuen; horrela, errealitate desberdinek, erantzun desberdinak izan beharko lituzketela onartu zen. Hortaz, garapenaren ikusmolde berrietan, ekitatea, demokrazia, parte-hartzea, iraunkortasuna, edota giza eskubideen gaiak berriro ere indarra hartzen hasi ziren. Ikusmolde berri horien artean, erreferentzia aipagarria da *Garapenerako Nazio Batuen Programak* (ingelesez *United Nations Development Programme: UNDP*) 1990ean argitaratutako Giza Garapenaren Txostena (ingelesez *Human Development Report*), zeinak giza garapenaren kontzeptuaren oinarriak jarri zituen.

Giza garapenaren kontzeptu berri horrek gizakia jartzen zuen garapenaren protagonista gisa eta, beraz, garapena lortzeko prozesuaren azken helburu gisa. Gizakiaren gaitasun eta aukerak zabaltzearen aldeko prozesuan oinarritzen zen garapen eredu hori, bai gizakia indibidualtasunean hartuta bai kolektiboki ere. Modu horretan, gizabanako bakoitzak bere garapena hautatzeko askatasuna izango zukeen. Garai horretan, garapena ez zen modu lineal batean ikusten, garapenak dimentsio desberdinak izan zitzaizkela azpimarratu nahi zen.

90eko hamarkadaren amaieran garbi ikusten zen globalizazioak ez zituela denentzat eragin positiboak. Disparekotasunak areagotzeaz gain, garapenari lotutako arazo globalak sortarazi zituen (Sassen, 2015). Horren aurrean, ezinbestekoa zen nazioarteko ekintza sendoa lortzea, baina ohiko Lankidetzaren sistema ez zegoen horretarako prest.

4. Laguntza ofizialaren berregituratzea eta pobreziaren agenda (1995-2015)

Aurreko hamarkadetan zehar izandako bilakaeraren ostean, 90eko hamarkada amaieran, Garapenerako Lankidetzaren sistemaren inguruko hainbat hausnarketa hasi ziren. Laguntzaren bideratutako politikek, oro har, eraginkortasun ezaren eta emaitza tinkorik lortu ez izanaren itzalean zeuden, eta honek, frustrazio eta unadura sentipena eragin zuen nolabait.

Sortu ziren hausnarketa eta ekimenak hiru bide desberdinetatik etorri ziren. Alde batetik, Garapenerako Lankidetzaren inguruko helburuetan bideratu ziren hausnarketak zeuden, hots, Garapenerako Lankidetzaren izatearen oinarri finkatu zirenak (Maestro eta Martínez, 2012); bigarrenik, helburu horiek lortzeko martxan jarri beharreko tresna posibleetan zentratu ziren, hau da, politikak finantzatu ahal izateko bideetan; eta hirugarrenik, Garapenerako Lankidetzaren sistemaren kudeaketaren hausnarketak ere plazaratu ziren. Hausnarketa bide horiek, ondoren datozen lehen hiru puntuetan zabalduko dira.

Aipatu beharra dago, bestalde, Milurteko Garapenerako Helburuek 15 urteko epemuga jarri zutelako proposamen haiek bete ziren ikusteko. Urte haietan guztietan, martxan jarri zen prozesu haren baitan, ordea, eszeptikorik izan zen, eta ezinbestekoa da ikusmolde kritikoak ere plazaratzea. Hauek, laugarren atal honetako azken azpiatalean bilduko dira, 4.4. azpiatalean, hain zuzen ere.

4.1. Milurteko Garapenerako Helburuak (MGH)

1995. urtean Giza Garapenaren inguruko goi-bilera izan zen Kopenhagen NBEaren baitan; bertan, ordura artean agerian geratu ziren globalizazio ekonomikoak eragindako arazoei aurre egiteko irtenbideak lortzeko proposamenak egin ziren. Garapenaren alde lanean ziharduten eragileak ez ezik, Estatu desberdinen partehartzea ere bultzatu nahi izan zen, pobrezia alternatibak proposatzeko bidea irekiz eta gizakia garapen jardueren erro moduan kokatuz. Goi-bilera hark 2000. urtean etorriko zen NBEaren Milurteko Adierazpenaren bidea ireki zuen. Adierazpen hark nazioarteko babes handia izan zuen (189 Estatu-buruk onartu zuten), eta bertan aurrez aipaturiko gaien inguruko balio eta oinarriak ezarri eta onartu ziren.

Milurteko Adierazpen hartatik, Milurteko Garapenerako Helburuak zeritzenak argitaratu ziren, hots: hasierako Milurteko Adierazpenean xehetasunez azaltzen ziren printzipio eta baloreak, neurgarriak ziren helburu zehatzetan sinplifikatzea izan zuten helburu. Nolabait, aurre egin behar zitzairen erroka guztietatik lehentasunak jarri nahi izan ziren, 2015. urtea helburu hauek lortzeko mugaria izanik. Orotara, 8 helburu definitu ziren:

1. Muturreko pobrezia eta gosea desagerraraztea.
2. Lehen hezkuntza unibertsala lortzea.
3. Genero berdintasuna eta emakumeen autonomia sustatzea.
4. Haurren heriotza tasa gutxitzea.
5. Amen osasuna hobetzea.
6. HIESari, malariari eta bestelako gaixotasunei aurre egitea.
7. Ingurumenaren iraunkortasuna bermatzea.
8. Garapenerako nazioarteko elkarteak sustatzea.

Helburu bakoitzaren baitan neurgarriak ziren ia 60 adierazle proposatu ziren. Aipatu beharra dago datuei eta bereziki neurgarritasunari garrantzi handia eman zitzaiola; nolabait, proposatzen ziren helburu orokor haiek handik 15 urtetara izango zuten inpaktua ebaluatzea zuten jomuga.


Aurrez adierazi den moduan, zortzi helburu horietan, pobrezia gakoak gainditu ahal izateko ezinbesteko elementuak zerrendaratu nahi izan zituzten, eta Garapenerako Lankidetzarako oinarriko helburuetara jo.

Agenda berriarekin batera, funtsek gora egin zuten. Helburuek oihartzun handia izan zuten, eta Lankidetzako maila guztietara hedatu ziren. Euskadin, adibidez, Lankidetzaren deszentralizatuaren dokumentu nagusietan MGHak aipatzen hasi ziren. Atxikimendua nahiko orokorra izan zen sektorean, nahiz eta kritika batzuk ere agertu ziren.

4.2. Garapenerako finantziak

2000. urtean zehaztu ziren MGHei bigarren hausnarketarako bidea ekarri zuen, finantziak modua, hain zuzen ere. Hau da, garapenerako plazaratu ziren helburu horiek guztiak martxan jartzeko beharrezko finantziak iturriak eta mekanismoak zeintzuk izango ziren zehaztu beharra zegoen, eta nolabait aurrez zeuden finantziak eredu zaharkituei bide berri bat ematea zen helburu. Ildo horretan, aipatzeko da garaiko lankidetzarako fluxu publikoak (GLO), lehenago izan zuten indarra galduz zihoazela. Izan ere, globalizazioak berekin ekarri zituen errealitate berriek bestelako fluxuei bidea zabaldu zien: horien artean aipagarriak lirateke Bidalketak eta Kanpoko Inbertsio Zuzenak (KIZ). Ondorengo irudiak fluxu pribatu hauen garrantzia islatzen du. Besteak beste aipagarria da 80ko hamarkada hasieratik gaur eguneraino, herrialdeen arteko fluxu ekonomiko desberdinetan GLOak izan duen pisu erlatiboa txikituz joan dela, nahiz eta balio absolutuak ikusita, GLOak bilakaera gorakorra izan.

5. Irudia: Errenta ertain eta baxuko herrialdeetara zuzendutako fluxuak (milioi dolarretan, prezio korrontekak)



Iturria: norberak egina Mundu Bankuko datuetatik.

Kontuan izan behar da, dena den, 5. irudiak egoera oso desberdinak ezkututzen dituela. Errenta baxuko hainbat herrialdetan (Afrikako askotan esaterako), Laguntza izaten da oraindik fluxu nagusia, eta ezinbestekoa da oinarriko zerbitzuak mantentzeko. Errenta ertaineko herrialde batzuetan, berriz, KIZ nagusitzen da, eta GLO ia ez da ematen (Txinan, esaterako).

Monterreyn (2002) eta Dohan (2008) izandako bilerek garapenaren finantziarioaren gaian zeuden argi-ilunak islatu zituzten. Alde batetik, ondo zirudien finantziarioaren esparrua zabaltzea, eta arreta honako ó eremuetara zuzendu zen: Barne baliabideak, Kanpo baliabide pribatuak (KIZ), Nazioarteko Merkataritza, Lankidetzaren finantziarioa eta teknikoak, Kanpo Zorra, eta Arazo sistemikoak. Ikuspegi orokorrago horrekin, ohiko arazo batzuei erantzuna emateko ahalmena handitu nahi izan zuten. Nolabait, garapenerako finantziarioaren analisia, lankidetzaren esparrutik, ikuspegi zabalago batera zabaldu nahi zen. Gainera, eta hasiera batean behintzat, fluxu batzuen gorakada nabarmendu zen (GLO adibidez).

Tamalez, planteamendu berri horrek ez zituen kasuen arteko desberdintasunak islatzen, eta gehiegizko fedea erakusten zuen Nazioarteko Finantza Sistemari, eta ohiko prozeduretan (KIZ eta ekintza pribatua, liberalizazioa...). Azpimarragarria da (halako deklarazioetan ohikoa denez) paradisu fiskalei emandako arreta eskasa, edota Tobin Tasa moduko ekimenen falta. Emaizta, neurri handi batean, adierazpenetara mugatu zen.

Askok uste izan du finantziarioari lotutako goi-bileretan sortutako akordioak oso ahulak izan zirela, eta orduan arteko nazioarteko finantza sistema hegemonikotik irteteko aurrerapauso handirik ez zela egin.

4.3. Garapenerako Lankidetzaren kudeaketa eta agenteak

Milurteko Garapenerako Helburuekin batera, Garapenerako Lankidetzaren kudeaketa hobetzeko beharraren inguruko debateak ere sortu ziren, hots, goi-mailako Foro edota hausnakerarako eztabaida-lekuak sortu ziren 2000. urtetik aurrera. Besteak beste, Erroma eta Marrakech (2003), Paris (2005), Akkra (2008) eta Busanen (2011) izan ziren foroak aipatzekoak dira. Historikoki, Garapenerako Lankidetzari sistemari eraginkortasun eskasa izatearen ideia esleitu izan zitzaion, bereziki 90eko hamarkadan, Garapenerako Lankidetzari urteetan zehar eskaintako diru-laguntzek emaitza nabarmenik izan ez zutela argudiatuz. Aipaturiko eztabaida-leku horiek guztiak, oro har, urteetan zehar antzemandako eraginkortasun eta kudeaketa arazo horiei irtenbidea emateko proposamenen iturri izatea zuten helburu. Kontuan izan behar da goi-mailako bilera hauek ELGAko *Garapenerako Laguntza Batzordeak* (GLB) antolatzen zituela, eta horrek, nolabait, ikuspegia zuzendu duela, benetako aldaketei leku eskasa utziz. Geroago izandako Mexikoko bileran (2014an), laguntzari buruzko ideiak eta egiturak zabaltzeko beharra adierazi zen. Aipatu beharra dago bilera hori *Nazio Batuen Garapenerako Programarekin* batera antolatu zela.

Foro hauetatik guztietatik bereziki aipagarria da Pariskoa; izan ere, eraginkortasun eza sortzen zuten arazoei aurre egin nahi izan zieten oinarritzko bost printzipio zehaztu ziren:

- Jabetzea: laguntzaren hartzailak definitutako agendarekin bat egitea, hau da, Garapenerako Lankidetzari politikak eta hegoaldeko herrialdeen garapen politika eta estrategiak bat egitea.
- Lerrokatzea: laguntza emaile eta hartzailak, definitutako agendaren sistema sustengatzen duen kudeaketa eta estrategiak ontzat ematea, hau da, nolabait, bazkideen politikak eta kudeaketa bideak koordinatuta egotea.
- Harmonizazioa: deialdi publiko zein bestelako eskabideak bateratuta egotea, nolabait prozedurak sinplifikatzeko eta informazioa partekatzeko konpromisoa duten emaileen arteko erlazioak dihardu.
- Emaitzen araberako kudeaketa: emaitzeta zuzendutako kudeaketa baten alde lan egitea, hau da, emaitzei begirako kudeaketaren xedea da garapenerako baliabide nazionalak nahiz atzerrikoak garapen helburuak betetzeko modu eraginkorragoan erabiltzea.
- Elkarrekiko erantzukizuna: emaileen zein hartzailen artean *elkarrekiko erantzukizuna* egotea.

Definitutako printzipio horiek guztiak azken urteetan Garapenerako Lankidetzaren zati izan diren erakunde publiko naiz pribatuaren azterketa eta ebaluaketen oinarri izan dira. Lehenago kontuan hartu izan ziren ideiak baziren ere, 2005ean, Parisko printzipioekin batera, aurretiaz zuten garrantziari bultzada handia eman zitzaion.

Dena dela, aipatzekoa da foroetan planteatu ziren oinarriek, Estatu desberdinen arteko Lankidetzari sistemaren kudeaketa eraginkorra eta gardena bultzatu nahi izan zutela, hau da, Garapenerako Lankidetzaren zati garrantzitsua osatzen zuten bestelako tokiko eragileren eta gizarte zibileko hainbat eta hainbat erakunderen hitza isilean geratu zen. Akkran izan zen goi-mailako Foroan plazaratu zen Garapenerako Lankidetzari sistema Estatueta mugatzearen akatsa: besteak beste, GGKEen eta bestelako eragile sozialen aldarrikapenak azpimarratu zuten gabezia hura. Eztabaidagarria den enpresen eta sektore pribatuaren parte-hartzea ere nabarmentzen joan zen Busango bileratik aurrera. Bestetik, aipagarria da, halaber, ohiko Ipar-Hego eskematik kanpo geratzen zen Lankidetzari (Hego-Hego deitutakoa, adibidez) eztabaida eta debate hauetan garrantzia irabazten joan dela orduetik hona (Sanahuja, 2011).

Aldarrikapen horien harira, Busango Foroan –goi-mailako laugarrena– onartu zen *Garapenerako Lankidetzari Eraginkorrerako Itunak*, eta Garapenerako Lankidetzari parte-hartzen zuten aktoreen aniztasuna islatzen zuen.

Horretaz gain, eta gertuago dagoen kasua aipatzearren, Estatu espainiarreko Gobernuak sustatzen duen Garapenerako Lankidetzari politikaz gain, Estatuako 17 autonomia erkidegok ere xehetasunez landutako Garapenerako Lankidetzari politikak diseinatu eta martxan jarri ditu azken hamarkadetan zehar. Are gehiago, Autonomia Erkidego desberdinetako plangintza dokumentuak eta legedia aztertuz gero, gizarte zibileko hainbat eta hainbat erakunderen parte-hartzea ezinbestekotzat jotzen da erkidego askotan. Besteak beste, aipagarriak dira, GGKEak, mugimendu sozialak, udal desberdinak, sindikatuak, unibertsitateak

eta bestelako ikerketa zentroak, hezkuntzako erakunde desberdinak eta abar. Eragile horietako askok, Garapenerako Lankidetzako jarduera desberdinetan –bai hegoaldeko lurraldeetara zuzenduta daudenak eta baita iparraldeko lurraldeetara ere–, pobrezia kontra eta garapena sustatzeko jardueretan parte-hartzeko nahia azaldu du. Euskadik zentzu horretan ibilbide luzea du.

Lankidetzaren mota hori (lankidetzaren deszentralizatua deitu ohi zaio) bereziki interesgarria izan da Estatu espainiarrean, nahiz eta krisia hasi zenetik beherakada nabarmena izan duen (estatuan gertatu den moduan). Egun, dena den, hainbat erakundetan oraindik ere mantentzen da (Euskadin batez ere), eta, nolabait, lankidetzaren mota horrek, bere berezitasunetan indarra jarriz bere lekua hartu nahi izan du, bai lehen, baita orain ere. Lankidetzaren mota horren potentzialtasunaren gakoa mendekotasun eza, malgutasuna eta eragileek parte har dezaten eskaintzen duen erraztasuna izan ohi dira (Labaien eta Unceta, 2015). Estatuan egindako lankidetzarekin alderatuz, alde batetik, azpimarragarria da GGKEek rol garrantzitsua hartzen dutela, eta bestetik, tokiko Sentikortze eta Garapenerako Hezkuntzaren alorrean egiten den ahalegina ere bereizgarria da (ikus 2. taula).

2. Taula. Garapenerako Lankidetzaren modalitateak	
Garapenerako Lankidetzaren	Beste herrialde batzuetan egiten den lana islatzen du modalitate honek. Kuantitatiboki zati garrantzitsuena izan ohi da, eta sektore eta ekintza anitzetan gauzatzen da (osasuna, hezkuntza, antolakuntza, eskubideak...).
Ekintza Humanitarioa	Ekintza humanitarioa, larrialdiak, eta beste egoera batzuetan behar diren ekintzak.
Sentikortze eta Garapenerako Hezkuntza	Bere ibilbide propioa izan du, izen eta ikuspegi desberdinekin. Sentikortzea helburu izateak, munduko hiritar ikuspegiari jauzi bat eman da azken urteetan. Normalean, gure gizartean egindako jarduerak dira, jarrerak eta ideiak garapeneraren alde aldatzeko nahian.

Iturria: norberak egina.

Garapenerako Lankidetzaren sortu diren aktore berrien artean, aipagarria da, era berean, hego-hego lankidetzaren hau da, garapenera bidean dauden herrialdeen artean egindako lankidetzaren. Horietako batzuk, laguntzaren hartzailerik izateak, emailerik izatera igaro dira. Hego-hego lankidetzaren mota ez da berria, izan ere, 70eko hamarkada amaieran sortu zen, aurrez aipaturiko Bandungeko Konferentzia Afroasiarrekin batera. Orduetik hona, goi mailako bilera desberdinetan lankidetzaren mota horrek bere lekua hartu du, baina azken hamarkada hauetan gehiago azpimarratu da bere garrantzia (Zimmermann eta Smith, 2011).

Lankidetzaren mota honen ezaugarri aipagarriena garapenera bidean dauden lurraldeen artean lankidetzaren hartu-emanak sendotzea da. Nolabait, ipar-hego lankidetzaren mota bertikaltasunari eta norabide bakarra izateari loturik egon da, eta hori ekidin ahal izateko, nortasun desberdin batekin jaio zen. Askok diote jabetze eta horizontaltasun handiagoa dagokiola lankidetzaren mota honi, garapenera bidean dauden lurralde biren edo gehiagoren elkarketa eta lankidetzaren bat ekar lezakeelako; nolabait, esperientzia desberdinen elkarbanatzea ekar lezake, berdintsuak diren erronkei aurre egin behar izateak batzen dituen esperientziekin, hain zuzen ere. Gainera, potentzialtasun moduan ikusten da historikoki hartzailerik eta emailerik izan diren lurraldeen arteko erlazio asimetrikoak ekidin litzakeelako (nahiz eta ez duen zertan honela gertatu).

4.4. Milurteko agendaren inguruko kritikak

MGHein batera martxan jarri zen prozesuak, Garapenerako finantziario eta kudeaketa sistemaren inguruko Foro eta goi-mailako bilerekin batera, bultzada handia eman zioten Garapenerako Lankidetzari, eta azken honen sustapenerako oinarri garrantzitsua izan dela ukaezina da. Garrantzitsua izan zen momentu horretan garapenera buruzko protagonismoa Nazio Batuetara itzultzea, Munduko Banku eta Nazioarteko Diru

Funtsaren planak ordezkatzuz.

Baina, alde positiboak albo batera utzita, kritikak ere izan dituzte MGHeK. Lehenik eta behin, Milurteko adierazpenetik helburuetara gauzatuak izatea aipatu behar da. Milurteko Adierazpenak egoera eta arazoaren konplexutasuna aintzat hartzen zuen, hots, garapenak berak dakarren konplexutasuna edota pobrezia gutxitzeko kontuan hartu beharreko ikuspegi multidimentsionala kontuan hartzen zuen, bere muga edota zailtasunekin batera. Baina konplexutasun hura guztia zortzi helburuetan biltzearekin, Adierazpena itxuragabetzen zen, izan ere, helburu hauek alde kuantitatiboan gehiegi zentratu baitziren. Muturreko pobrezia soilik murriztutako helburuak ziren, eta murriztapen horretan, gainera, hamarkadetan zehar berebiziko garrantzia lortu zuten giza eskubideen gaia ere alboratu zela. Eskubideen harira, helburuetan, generoaren inguruko ñabardurarik apenas ikus zitekeela ere plazaratu zen mugimendu feministetatik. Beste Foro batzuetan bezala, generoaren ikuspegiak presentzia eskasa zuen zeharkako gai moduan, eta hau gabezia handitzat jo zen, izan ere, pobrezia izaerak emakume itxura zuela esaten baitzen.

Helburuen betetze mailari dagokionez, ez dago adostasunik. Gehienak bete gabe geratu badira ere, pobrezia erdira gutxitzea aipatu ohi da lorpen nagusi moduan, eta baita ura eta saneamenduari lotutako aurrerapenak ere. Kontua da helburu batzuetan atzera pausoak egon direla, eta alde handiak gune geografikoaren arabera. Bestetik, zalantzarik da lankidetzaren eragina emandako aurrerapenetan: pobrezia kasuan, adibidez, Txinan pobreziatik irten diren hainbat milioi gakoak izan dira helburu hori lortzeko, baina honek ez dauka zerikusirik nazioarteko lankidetzarekin, haien barne politikekin baizik.

Garapenerako lankidetzaren sorreran pentsatzen zen moduan, 2000. urtetik aurrera planteatu ziren helburu haiek ere, garapena lortzeko bidea lineala zela aditzera eman zuten: nolabait, azpigaratuak zeritzen Estatu guztientzat konponbide bakar eta uniformeak eskaini ziren, Estatu bakoitzaren testuinguru sozial, politiko eta ekonomikoa berdinez biltzen. Ikuspegi honen arabera, herrialde batzuk garatuta zeuden (emaileak) eta beste batzuk berriz garatu gabe (hartzaileak), eta lehenengoek laguntza bidali behar zieten bigarrenei, ohiko lankidetzaren sistemari jarraituz. Azken ideia horri jarraiki, aipatzekoa da, oro har, Estatuak hartzen zela lankidetzaren sistemako objektu aktibo bakar moduan. Horrela, Estatuak gaindikoko bestelako tokiko, eskualdekako edota lurraldekako eragileak analitikat at utzi ziren.

Bestalde, garapenaren ardura edo eskakizunak azpigaratuak zeritzen hegoaldeko lurraldeei esleitu zitzaizkien, oro har. Adierazgarria da, esaterako, definitu ziren MGHeKetik, lehen zazpiak, hegoaldeko lurraldeek lortu beharko lituzketen puntuak azaltzen dituztela, eta bakar bat besterik ez da iparraldeko Estatu aurreratu zeritzenei esleitutakoa. Garatutako herrialdeek ez omen zuten garapenerako arazorik, beraz.

MGHeK, garapenerako arazoaren ondorioetan jarri zen arreta Helburuak finkatzeko, baina ez hain beste aztertutako arazoaren zergatietan edo helburuak lortzeko beharko ziren mekanismoetan. MGHeK lortu ahal izateko bideak edo tresnen inguruko hausnarketak oso urriak izan ziren. Beste modu batera esanda, argi geratu zen lortu nahi zena, baina ez hainbeste horretarako erabiliko ziren bideak. Aurrez aipaturiko MGHeK jarraituz, garapena finantzatu ahal izateko bide berrien inguruko Monterrey eta Dohako goi bilerak giltzarri izan ziren hausnarketa horien inguruan proposamenak egiteko. Dena dela, lehen esan bezala, akordioak minimoak izan ziren zentzu horretan, eta, gainera, MGHeK koherentzia eskasa izan zutela ere esan daiteke.

Garapenerako lankidetzaren sistemaren gabeziak ere agerian geratzen ari ziren denbora aurrera zihoan heinean. Hego-hego lankidetzaren hazkundera, esaterako, ez zen behar bezala kontuan hartzen. Paris eta Akkrako prozesuek ikuspegi teknokratiko batetik ulertzen zituzten lankidetzaren arazoak, hots, arazo hauek teknikoak balira bezala hartzen ziren, arreta gutxi emanez laguntzaz kanpo geratzen diren funtsezko elementuei. Gainera, eduki politikoago bat izan zezaketen printzipioak (*jabetzea*, eta *elkarrekiko erantzukizuna*) gutxiago garatu ziren, besteekin alderatuz.

Finean, Milurteko lehen aldarrikapen hark martxan jarri zuen prozesua argi-ilunez beterikoa izan da. Garapenaren kontzeptuak berak duen konplexutasuna hasieran aintzat hartu bazen ere, hamarkada aurrera zihoan heinean, indarra galduz joan zen, pobrezia lortutako gaietara murrizteko. Mundu mailan dagoen

testuinguru berrian, Garapenerako Helburu Iraunkorren (GHI) etorrera izan berri dugu. Ondorengo atalean, aldaketa hauek guztiak aztertuko ditugu, baita GHlen argitalpenak planteatu dituen erronkak ere.

5. Laguntzaz harago: 2030 agenda eta helburu berriak (2015-...)

Azken hamarkada hauetan izan diren aldaketa politiko eta sozialak, eta hainbat arlotan sortutako arazoak, garapeneraren kontzeptua bera birmoldatzen joan dira. Birmoldapen horiekin batera, Garapenerako Lankidetzaren politikak ere aldatu dira (Unceta, 2013), nahiz eta, ikusiko dugunez, prozesu horiek astiro joan. Hala ere, 2015etik aurrera, Garapenerako Helburu Iraunkorren (GHI) argitalpenarekin batera, inflexio puntu bat egon dela dirudi. Azken garaian, fenomeno politiko, ekonomiko eta sozial desberdinek Garapenerako Lankidetzaren eta garapena bera ulertzeko modu berriak ekarri dituzte. Hausnarketa eta aldaketa horiek anitzak izan dira: alde batetik, azken hamarkadetan Garapenerako Lankidetzaren sistemak helburu desberdinetan izan duen eragina, eta bereziki pobrezia gutxitzean izan duen benetako eraginaren gainean eman direnak; beste alde batetik, urteetan zehar egin den ipar eta hegoaldeko banaketa bera ere zaharkituta geratu dela dirudi; horretaz gain, ohiko Estatu gaitasun handiko bestelako eragile berriak indarrez sartu dira Garapenerako Lankidetzaren sistemaren zati garrantzitsu izatera; azkenik, orain arte erabilitako baliabideez harago joateko beharra ere ikusten ari da.

Gai horiek eta beste hainbat gaur egungo testuinguru eta ziurgabetasun egoera ulertzeko ezinbesteko elementuak dira, eta hein handi batean, 2015. urtean kaleratutako GHlen testuinguruaren oinarri izan dira. Hasteko, inguruan gauzatutako aldaketa nagusiak aztertuko ditugu 5.1. azpiatalean. Horren ostean, lankidetzaren kudeaketa, eragile eta gobernantzan antzematen diren aldaketak ikusiko ditugu. Ondoren, Garapenerako Helburu Iraunkorren birpasantutako ditugu, eta helburu horiek lortzeko ezinbestekoa den politiken koherentzia azalduko dugu. Azkenik, lanaren ondorioak laburbilduko ditugu, etorkizuneari begirada jarriaz.

5.1. Nazioarteko testuinguru berria

Gerra ostean Garapenerako Lankidetzaren hasi zenetik, testuinguru sozial, politiko eta ekonomikoan aldaketa handiak egon dira, baita garapeneraren kontzeptuaren inguruko ideietan ere. Aldaketa horiek, Garapenerako Lankidetzaren antzerako aldaketak egitea ekarriko lukete; hala ere, oro har, politika horiek hamarkadetan zehar errotutako sistema tradizionalen darraite.

Garapenerako Lankidetzaren logika, lurralde aberats eta garatuak, lurralde txiroen garapen maila zehatz bat lortu ahal izateko laguntza finantzarioa bidaltzean zetzan, eta oinarriko ideia hori zaharkituta geratu da. Oraindik larrialdi egoeran bizi diren hainbat lurralde badaude ere, beste batzuetan egoera nahiko desberdina da. BRICS deituriko herrialdeetan (Brasil, Errusia, India, Txina eta Hegoafrika), esaterako, fluxu tradizionalen aldaketak ikusi dira. Adibidez, Txinak superabituak erregistratzen ditu, eta hein handi batean, errenta altuko lurraldeak finantzatzen ditu.

Aurrez aipatu dugun garapen kontzeptuaren ideia lineala (lurralde orok laguntzaren bidez lortuko lukeen garapen egoera) ere indarra galduz joan da azken urteetan. Iraunkortasunaren arazok, disparekotasunaren handitzeak (Milanovic, 2012), edota errenta altuko lurraldeetan krisiaren eraginez azaleratu diren problemek mundua lurralde garatu eta azpigaratuetan banatzearen logika oker dagoela adierazten dute; hau da, ez dago garatutako lurralderik. Ikusmolde batzuek garapen txarraren ideia azaleratu dute, eta beste batzuek, garapeneraren kontzeptua bera ukatzen dute, azken hamarkadetan mendebaldeko pentsamendu dominanteari loturikoa dela argudiatuz.

Kontuan hartzen badugu Garapenerako Lankidetzaren hastapenetan garapen bidean zeuden lurraldeetara zuzendutako fluxuen gehiengoa publikoa zela, azpimarragarria da azken hamarkadetan fluxu pribatuen (KIZ edota diru-bidalketak) garrantzia handitu egin dela eta orain fluxu publikoak gailentzen dituztela baldintza globalean. Hala ere, errealitate horren kontrari, oraindik ere badira

lurralde anitz, horien artean Afrikako Saharaz hegoaldeko herrialdeak, zeinetan oraindik ere GLOak beraien Nazio Produktu Gordinaren (NPG) %10 baino gehiago den (ikus 3. taula). Are gehiago, oinarrizko zerbitzu asko, oraindik ere, GGKEen eta nazioarteko lankidetzak aurrera eramandako lanaren menpe daude lurralde horietan. Finean, adibide desberdinen heterogeneotasunak errealitate bakoitza ikuspegi desberdin batekin aztertzea eskatzen du.

3. Taula. GLOek Nazio Produktu Gordinaren barruan hartzen duten %. 2000-2014 urteen arteko batez bestekoa			
Herrialdea	GLO/NPG (%)	Herrialdea	GLO/NPG (%)
Liberia	60,82	Niger	13,08
Burundi	26,65	Etiopia	12,44
Sierra Leona	20,91	Gambia	11,96
Mozambique	20,13	Burkina Faso	11,88
Eritrea	20,07	Uganda	11,70
Ruanda	18,57	Mauritania	11,65
Malawi	17,01	Afrika Erdiko Errepublika	11,51
Kongoko Errepublika Demokratikoa	15,66	Zambia	11,05
Ginea Bissau	15,45	Mali	10,82
Cabo Verde	14,86	Tanzania	10,21

Iturria: norberak egina Mundu Bankuko datuetatik.

Berotze globala, baliabide zehatz batzuk agortzea, segurtasun falta, kapital-ihesa edota finantza-merkatuen ziurgabetasuna bezalako arazoek Lankidetzaren desberdin baten beharra eskatzen dute. Leku batzuetako zein besteetako elkarrekiko loturek, eta politika desberdinen ondorioek, gai horiek guztiak modu isolatuan kontsideratzea zaila egiten dute.

Testuinguru horretan, zentzuzkoa dirudi Garapenerako Lankidetzak beste ikuspuntu bat behar lukeela, izan ere, Lankidetzaren eraginkortasuna ere zalantzan jarri baita (Alonso eta Ocampo, 2011). MGHEkin jarri ziren helburuak izan duten bilakaera oso modu desberdinean egin da (adibidez, muturreko pobrezia egoeran dauden lagunen portzentajearen gutxikuntza).

Beraz, testuinguru berri baten aurrean gaudela esan daiteke; eta egoera berri horrek, gobernantza globalean, nazioarteko Garapenerako Lankidetzaren kudeatzeko moduan eta garapen prozesu desberdinak ulertzeko moduan eragin zuzena du.

5.2. Lankidetzaren sistema eta eragile berriak

Aurreko ataletan azpimarratu den moduan, aktore berriek lankidetzaren alorrean duten presentzia areagotu egin da azken hamarkadetan zehar. Hego-hego lankidetzaren, esaterako, hazten doa lankidetzarako planteamendu berriekin: Golkoko herrialdeen edota BRICS deituriko lurraldeen (Brasil, Errusia, India, Txina eta Hegoafrika) lankidetzaren protagonismo gero eta handiagoa lortzen ari dira.

Tokiko erakundeak ere eragile berri moduan sartzen ari dira Garapenerako Lankidetzaren alorrean, eta horien gehikuntza, neurri batean, Estatuen rol aldaketarekin loturik egon daiteke. Orain dela gutxira arte,

Estatuak, prozesu sozial eta ekonomikoen kudeaketako erreferentzia nagusia ziren. Baina globalizazioak prozesu hauen guztien berregituraketa eragin du. Egoera horretan, tokiko erakundeek, beraien espazioaren aldarrikapen moduan, beraien presentzia ugarituz joan direla esan daiteke.

Horretaz gain, eta paradoxa izan badaiteke ere, gizabanako eta gizarteen garapenean eragina duten hainbat gai arazo globalekin erlazionaturik daude, baina arazo horiei ez zaie erabaki edo erantzun globalekin aurre egiten. Besteak beste, ingurumena hondatzeari loturiko arazoak, desberdintasun globalak, giza eskubideen babesik ezak, finantza merkatuen kontrolik ezak edota migrazioaren gaiak erantzun globalik ez dute, eta horren aurrean Estatuak erantzukizuna mugatua da. Beraz, Estatuak ez dute askotan gaitasunik maila globaleko zein nazioarteko arazo edota beharrei aurre egiteko. Garapenerako Lankidetzako politiketan ere eragina izan dute aldaketa horiek guztiek, eta Estatuak gai horiekiko duten gabeziaren aurrean, tokiko erakunde desberdinek jardura horietan parte-hartzea areagotu dute.

Lankidetzako sistemari eta gobernantzari dagokionez, aldaketak pixkanaka ikusten hasi dira. Aurrez aipaturiko moduan, Busaneko goi-bilerak (2011) ere bistaratu zuen nolabait gizarte zibilak eta beste aktore batzuek Garapenerako Lankidetzako politiketan parte-hartzeko beharra eta gogoia. Busanen, gainera, agenda global baten beharra atzeman zen, GLO baino gehiago beharko zela adierazi zen, alegia.

Garapenerako sistemari buruzko goi-bilerak ere aldatuz joan dira, eta Mexikokoa (2014) ELGAko Garapenerako Laguntza Batzordeak (GLB) Nazio Batuen Garapen Programarekin batera antolatu zuen, aurreko bileren ibilbidea aldatuz (Roma, Paris eta abar). Talde berria ere sortu zen testuinguru horretan prozesuak jarraitzeko (ingelesez *Global Partnership for Effective Development Cooperation*: GPEDC). Horri lotuta, ELGAko Garapenerako Laguntza Batzordearen (GLB) rola eta protagonismoa gutxitzen ari da azken garai hauetan. Nazio Batuetako Batzorde Ekonomiko eta Soziala (ingelesez *Economic and Social Council*: ECOSOC), eta bere Garapenerako Lankidetzako Foroa (*Development Cooperation Forum*), esaterako, pisua irabazten doaz Garapenerako Lankidetzan eta bere antolakuntzan, atzerazina dirudien prozesu batean.

Nazioarteko Garapenerako finantziarioari dagokionez, oso adierazgarria da BRICS herrialdeek 2013an sortu zuten Garapenerako Banku Berria. Bere egoitza Shangain izanda, Banku hori Mundu Banku eta Nazioarteko Moneta Fondoen alternatiba bezala aurkeztu da. Ohiko erakundeak ez bezala, hegoaldeko herrialdeek zuzendutako erakundea izango da, beste ikuspegi batetik. Momentuz, bere neurria txikia izan arren (Mundu Bankuarekin konparatuta), oso seinale argia ematen ari da aldaketei begira.

5.3. 2030 Agenda eta Garapenerako Helburu Iraunkorrak

2030 Agenda garapenaren ideia berrietara eta gaur egungo errealitate berrira moldatu da, testuinguru desberdinetan egon daitezkeen tokiko arazoak eta arazo globalei aurre eginez. 4. taulan ikusten den moduan, Agenda honek ikuspegi zabala hartzen du bere gain, eta gabeziekin erlazionaturik dauden helburuez aparte (pobrezia, osasuna...), ingurugiroari lotutako gaiak, disparekotasunaren arazoak, eta egungo ekoizpen eta kontsumo erduei buruzko erreferentziak ere planteatzen ditu. Agenda honek ardura kolektiboaren aldeko aldarrikapena ere egiten du.

4. Taula. Garapenerako Helburu Iraunkorrak.

	Helburua	Azalpena
1	Pobrezia desagertzea	Pobrezia mota guztiak desagertzea mundu osoan.
2	Goserik ez izatea	Gosea amaitzea, elikagai-segurtasuna eta elikadura hobea lortzea, eta nekazaritza jasangarria bultzatzea.
3	Osasuna eta ongizatea	Guztionez eta adin guztietan bizimodu osasungarria bermatzea eta ongizatea sustatzea.
4	Kalitatezko hezkuntza	Guztionezko kalitatezko hezkuntza inklusiboa nahiz bidezkoa bermatzea eta etengabeko ikasketarako aukerak bultzatzea.
5	Genero-Berdintasuna	Genero-berdintasuna lortzea eta emakume nahiz neskatu guztiak ahaldunduz.
6	Edateko ura eta saneamendua	Uraren erabilgarritasuna eta kudeaketa jasangarria nahiz guztionezko saneamendua bermatzea.
7	Energia Berriztagarriak	Energia eskuragarria, fidagarria, jasangarria eta modernoa bermatzea guztionez.
8	Lan-Duina eta hazkunde ekonomikoa	Guztionezko hazkunde ekonomikoa jarraitua, inklusiboa eta jasangarria, enplegu betea eta produktiboa nahiz lan duina sustatzea.
9	Berrikuntza eta azpiegitura	Azpiegitura erresilienteak eraikitzea, industrializazio inklusiboa eta jasangarria bultzatzea, eta berrikuntza sustatzea.
10	Desberdintasunak murriztea	Herrialde bakoitzean eta herrialdeen artean desberdintasunak murriztea.
11	Hiri eta komunitate jasangarriak	Hiriak eta giza kokaguneak inklusiboak, seguruak, erresilienteak eta jasangarriak izatea lortzea.
12	Ekoizpena eta kontsumo arduratsua	Kontsumo eta ekoizpen modalitate jasangarriak bermatzea.
13	Klima babesteko ekintza	Neurri urgenteak hartzea, klima aldaketaren eta haren ondorioen aurka egiteko.
14	Uretako biziak	Ozeanoak, itsasoak eta itsas baliabideak mantentzea eta modu iraunkorrean erabiltzea garapen jasangarriari begira.
15	Lehorreko biziak	Lehorreko biziak babestea, lehengoratzeko eta modu jasangarrian erabili dadila sustatzea, basoak modu jasangarrian kudeatzea, basamortutzearen aurka borrokatzea, lurren degradazioa inbertitzea eta biodibertsitatearen galera gelditzea.
16	Bakea eta justizia	Garapen jasangarriko gizarte baketsuak eta inklusiboak sustatzea, guztioi justiziarako sarbidea erraztea, eta erakunde eraginkorrak eta inklusiboak sortzea maila guztietan.
17	Itunak helburuak lortzeko	Ezarpen-baliabideak sendotzea eta Garapen Jasangarriko Munduko Ituna biziberritzea.

Iturria: NBEaren Adierazpenean oinarrituta, Eusko Jaurlaritza (2015).

Lehenik eta behin, Agenda honek, Ipar eta Hegoaldeko dualtasunarekin amaitu du, edo bestela esanda, garatuen eta azpi-garatuen sailkapen eredutik at dago. MGHekin alderatuz, helburu berri horiek mota guztietako lurralde, gizarte eta erakundeei eragiten diete –eta ez errenta baxuko lurraldeei bakarrik–. Agenda honen helburua integratzailea eta zatiezina izatea da, garapenaren arazoei aurre egin ahal izateko, betiere, egoeraren eta arduren aniztasuna aintzat hartuz. Eragile bakoitzak bere inplementazioa nola egin lezakeen aztertu beharko du, bere testuinguru eta arduetara egokituz.

Iraunkortasunaren inguruan, Rio de Janeiron izandako bileratik gaur egunera arte luzatu diren kezka eta konpromisoen bat-egitea ere azpimarragarria da. Garapen iraunkorraren kontzeptua Agenda berri honetako elementu nagusia da.

Agenda egiteko jarraitu zen prozesuan, lurralde desberdinek, erakundeek, gizarte zibilak, enpresek eta bestelako eragileek parte hartu zuten, eta horrek ELGAK eta laguntzaren sistemaren logikak zuzendu zituen aurreko foroekiko desberdintasun handia ekarriz.

Honetaz guztiaz gain, aipatu behar da Agenda honek kritika eta kontraesanak ere badituela (Martínez Osés eta Martínez, 2015). Garapenaren motor bezala definitzen den hazkunde ekonomikoari emandako garrantzia oso handia da, adibidez, eta bestelako hausnarketekin kontraesanean egoteaz gain, helburu batzuk inkoherenteak ere izan daitezke. Beste kasuetan bezala, izaera loteslea falta zaio Agenda honi, eta honek, borondatean oinarritzen den Agenda baten eraginkortasunaren inguruan zalantzak plazaratu ditu. Bestalde, giza eskubideen presentzia oso eskasa da Agenda berrian, eta hau gabeziatzat jo daiteke. Gainera, giltzarri izan daitezkeen fiskalitatearen eta nazioarteko finantza sistemaren inguruko gaiak ez dira nabarmentzen.

Azken finean, garapenaren, lankidetzaren eta arazo globalen inguruko hausnarketei ikuspegi aldaketa bat emateko aukera baten aurrean gaudela dirudi. Hala ere, bere implementazioaren inguruan zalantza asko zabaldu dira. Ondorengo urteetan Agenda honek planteatzen dituen politika desberdinak aurrera eramango diren modua giltzarria izango da zentzu horretan.

5.4. Garapenerako Politiken Koherentzia: agenda berria garatzeko ezinbestekoa

Agenda berria ikusita, ezinbestekoa da maila guztietako politiketan ahalegina egitea helburuak lortzeko: nazioartean, herrialde desberdinetan, tokiko politiketan... Garapenerako Agenda aldeaniztun baterantz jo behar dela dirudi.

Horretarako, tresna erabilgarri gisa aurkezten da Garapenerako Politiken Koherentzia (GPK). Kontzeptu hau ez da berria, baina garatzen dihardu, bereziki 1990. urtetik aurrera, eta aukera moduan plazaratzen da agenda berriaren aurrean (Gutiérrez et al., 2017).

Garapenerako Politiken Koherentzia lankidetzaren arlotik sortzen da, baina bere ikuspegia eta esparrua Laguntzatik harago dago ezbairik gabe. Arlo akademikoetan eta lankidetzako foro batzuetan (ELGAN adibidez), aspalditik dago onartuta GLOtik harago joateko beharra, eta GPK garatzen joan da. Hala ere, oraindik ez da goi-bileretan behar bezala gaia jorratu eta praktikara eraman.

Hasiera batean, lankidetzaren egindako ebaluaketetan, behin eta berriro agertzen ziren kontraesanei aurre egiteko planteatzen zen koherentziaren beharra. Ikuspegi horretatik, ez zen logikoa herrialde batzuei laguntza eskaintzea eta, aldi berean, leku berberetan eragin negatiboak zituzten politikak sustatzea. Adibidez, merkataritza politikek errenta baxuko hainbat herrialderen produktuen salmentak oztokatzen zituzten, hots, haien garapenerako aukerak mugatzen zituzten nolabait.

Kontraesan argi horiek ekiditea Politiken Koherentziarako helburu bat izan behar da zalantzarik gabe, baina kontzeptua harago joan da. Horrela, ikuspegi zabalago batetik, politika desberdinen artean sortu ahal diren sinergiekin lotzen da GPK. Ikuspuntua apur bat baikorra bada ere, laguntzak (edota lankidetzak) eta beste politika batzuek helburu amankomunak izan ditzakete, eta elkarren artean lagungarriak izan daitezke. Ikuspegi hori kanpo politikei loturik egon ohi da.

Kontzeptua modu zabalago batean ulertuta, Garapenerako Politiken Koherentzia giza-garapenaren ikuspegia gobernuko ekintza osoan zehar sartzean datza. Ikuspegi horretatik, politika guztiak (kanpokoak zein barnekoak) garapenerako politikak dira, beren ondorioak eta azpian dagoen garapenerako ereduak aztertuz.

Ikuspegi zabal horretatik, politikak garapenean (eta ez bakarrik hirugarren herrialdeen garapenean) duten eragina kasu guztietan aztertzea posible litzateke, eta hori garrantzitsua da agenda berriarekin; izan ere, garatuen eta ez-garatuen kategoriak desagertzen baitira. Koherentzia tresna baliagarria izan daiteke zentzu horretan, edozein herrialderen (Ipar zein Hegoaldekoa) politiken egokitasuna aztertzeko.

GPK, ikusi dugunez, koordinazioa baino gehiago da, eta beharrezkoa da gobernu maila desberdinetan baneraturata egotea (herrialdeak, eskualdeak, tokiko erakundeak...). Momentuz, herrialde batzuetan planteatzen hasi dira GPK aplikatzeko neurri batzuk. Nahiz eta GPKaren gaia erakunde deszentralizatueta hain txertatua ez egon, aipagarria da Euskadin Garapenerako Lankidetzako Legeak berak aipatzen duela koherentziaren gaia, eta GGKE desberdinak ere denbora luzez dihardute horren alde lan egiten (Unceta et al., 2015). Gainera, azken urteetan, aurrerapausoak eman dira, eta Eusko Jaurlaritzak konpromiso hori onartu du.

Bestalde, eta zailtasunak badaude ere, herrialde batzuetan ikuspegi hori politika desberdinetan integratzeko batzordeak sortu dira, eta koordinazio mailetan ere ematen dira. Goi mailako konpromisoa ezinbestekoa da eremu honetan benetako aurrerapausoak emateko.

GPK-k ez du Laguntza Ofizialaren beharra ukatzen (tamalez, oraindik ere beharrezkoa baita egoera batzuetan), baina Agenda berriaren aurrean, laguntzaz harago joateko arreta jartzearen garrantzia azpimarratzen du, eta horretarako baliabide garrantzitsu bat izan daiteke.

Azkenik, aipatu beharra dago, egoera berri honek, Garapenerako Laguntzaren helburuak, bere sistema eta berau osatzen duten eragileen rola birpasatzeko aukera berria ireki duela. Alde batetik, bereziki garrantzitsua izaten jarraituko du Lankidetzaren presentzia herrialde txiroenetan, eta, beste alde batetik, funts pribatuak heltzen ez diren tokietan arreta jartzea ere beharrezkoa izango da.

5.5. Lankidetzaren etorkizuna: laguntzaz harago

Dokumentuaren hasieran azaldu dugunez, Garapenerako Lankidetzaren hasierako planteamendua nahiko sinplea izan zen: laguntza edo transferentzia bidez konpondu nahi ziren herrialdeen artean hauteman ziren arazo eta desberdintasunak.

Urteekin, garapeneko arazoen diagnostikoa hobetzen (eta korapilatzen) joan da hasierako planteamenduari kontraerriaz. Begi-bistakoa da, garatuak zeritzen herrialdeen egoera, esaterako, ezin dela besteen eredugarri izan (bizi garen planeta honek, ez bailuke hori jasango), eta horrekin batera, garapenaren esanahia bera kolokan jarri da. Horretaz aparte, gauzak benetan hobetzeko nahian, laguntza baino indartsuagoak diren beste politiken eragina ere kontuan hartu beharko litzake, eta ekonomiatik harago doazen beste hainbat arlotan sakondu. Bestetik, hasierako diagnostikoan zentralak izan ziren estatuen gobernuak, haien ahalmena gutxituta ikusi dute globalizazio eta korporazio erraldoien aurrean. Arazoak eta erronkak, nolabait, arlo guztietan nabarmentzen dira, eta batzuetan fokatzeko global bat behar badute ere, askotan tokiko mailatik lantzea ere beharrezkoa da.

Horren aurrean, hainbatek, globalizatutako merkatuen bidez, sortutako arazoak konponduko zirela uste zuen, baina begi bistakoa da hau ez dela gertatu, eta besteak beste, NBEen helburu berriek egoerak larriagotzen darriela ohartarazten gaituzte.

Garapenerako Lankidetzari dagokionez, egoera horrek ohiko Laguntzaren eremutik harago joatea eskatzen du, hots, esparrua zabaltzea, eta beste politika eta arloetan eragitea (Severino eta Ray, 2009). Hala ere, ingurunean izan diren aldaketen eragina mugatua izan da orain arte, eta lankidetzaren sistema osoaren inertziak agerian geratu dira. Hori guztia aldatzen has liteke helburu berriekin; izan ere, adierazten den perspektiba orokorra aukera bat izan daiteke garapeneko arazoei beste era global batetik aurre egiteko.

Illo honi jarraituz, ezinbestekoa da GLO mantentzea eta handitzea, munduan dagoen gabetia larriak arintzeko, eta nazioarteko solidaritatea eta justizia sustatzeko (antzinako %0,7ko konpromisoa, esaterako,

oso kasu gutxitan lortzen da). Euskadin, adibidez, GGKEek burutzen dituzten proiektuek hainbat pertsonen bizitzetan eragiten dute munduko herrialde askotan, beraien osasuna, hezkuntza edo antolakuntzarako baliabideak osatuz. Garapenerako Hezkuntzaren rola ere garrantzitsua izan da arazoei buruzko ezaguera eta jarrerak aldarazteko. Kasu askotan, lankidetzaren bidez egindako salaketak edota zabaldutako informazioak ezinbestekoak izan dira munduan gertatzen zena ulertzeko, eta egoera batzuetan aldaketak bultzatzeko.

Dena dela, eta ekintza horiek izan dezaketen garrantzia gutxietsi gabe, hamarkadetan zehar ibilitako bideak geroz eta argiago utzi du ekintza hauek ez direla nahikoak. Aldaketak behar dira politika mota zein maila guztietan (nazioartean, herrialde edo tokiko esparruan, merkataritzan, finantzetan, hezkuntzan...), eta giza garapenaren ikuspegia bertan kokatu beharko da, beste interes batzuen aurrean.

Zentzu honetan, 2030 Agendak aukera ona dirudi beharrezkoak diren aldaketak bultzatzeko, eta herrialde, lurralde eta pertsona guztietara zuzendu da garapenerako arazoei ikuspegi anitza dutela kontuan hartuz. Agendaren gabeziak ezagutu ere, abiapuntu egokia izan daiteke birplanteamendu zabalago batekin hasteko. Horretarako, Agendaren inplementazioa hurbiletik jarraitu beharko da, aldaketak sortzeko emango diren erresistentziak eta oztopoak gutxietsi gabe. Egun ditugun desberdintasunak arau, egoera eta indar desberdinen ondorioak dira, eta hori aldatzea ez da erraza izango, lankidetzaren historiak erakutsi digun bezala.

Bibliografia

- ALONSO, José Antonio, eta José Antonio Ocampo (ed.), (2011): *Cooperación para el desarrollo en tiempos de crisis*. Fondo de Cultura Económica. Madrid.
- EUSKO JAURLARITZA (2015): *Aukera berri bat denontzat: 2030 Agenda eta Garapen Iraunkorrerako helburuak Euskadin*.
- GUTIÉRREZ, Jorge, Natalia Millán-Acevedo, eta Ignacio Martínez-Martínez, (2017): "Dentro o más allá de la Ayuda: El difícil camino de la Coherencia de Políticas para el Desarrollo". *Iberoamerican Journal of Development Studies*, 6-1 (forecoming).
- LABAIEN, Irati eta Koldo Unceta (2015): *Lankidetzaren Deszentralizatuaren esanahia eta garrantzia: Espainiako estatuko autonomia erkidegoen balio erantsia eta ekarpen espezifikoen analisia*, Hegoako Lan Koadernoak, 66.
- MAESTRO, Irene, eta Javier Martínez Peinado (2012): "La cooperación al desarrollo como parte de la estructura económica del capitalismo global". *Estudios de Economía Aplicada*, 30-3, 811-835.
- MARTÍNEZ OSÉS, Pablo José, eta Ignacio Martínez (2015): "La Agenda 2030: ¿Cambiar el mundo sin cambiar la distribución del poder?". *Lan Harremanak*, 33, 73-102.
- MILANOVIC, Branko (2012): "Global inequality recalculated and updated: the effect of new PPP estimates on global inequality and 2005 estimates", *Journal on Economic Inequality*, 10 zbkia, 1-18 orriak.
- SANAHUJA, José Antonio (2011): "Entre los Objetivos de Desarrollo del Milenio y la cooperación Sur-Sur: actores y políticas de la ayuda al desarrollo en América Latina y el Caribe". *Pensamiento Iberoamericano*, 8, 195-222.
- SASSEN, Saskia (2015): *Expulsiones. Brutalidad y complejidad en la economía global*. Katz editores, Buenos Aires.
- SEVERINO, Jean-Michel eta Olivier Ray (2009): *The End of ODA: Death and Rebirth of a Global Public Policy*. Center for Global Development.
- SUTCLIFFE, Bob (2008): *Mundu desorekatu honen 100 irudi*, Hegoa (UPV/EHU).
- UNCETA, Koldo (2013): "Cooperación para el desarrollo: anatomía de una crisis". *Íconos-Revista de Ciencias Sociales*, 47, 15-29.

UNCETA, Koldo, Natalia Millán, Yésica Álvarez, Iratxe Amiano, Jorge Gutiérrez, Irati Labaien, María José Martínez, Michel Sabalza, Unai Villena eta Idoye Zabala (2015): Garapenerako Politiken Koherentzia Euskadin: diagnostikoa eta proposamenak. Eusko Jaurlaritz. Vitoria-Gasteiz.

UNCETA, Koldo eta Pilar Yoldi (2000): Garapenerako Lankidetz: sorrera eta bilakaera historikoa. Hegoa. Eusko Jaurlaritz. Vitoria-Gasteiz.

ZIMMERMANN, Felix, eta Kimberly Smith (2011): "More actors, more money, more ideas for international development co-operation". *Journal of International Development*, 23, 722-738.

- 1. Garapenari buruzko pentsamenduaren bilakaera: teoriak, estrategiak eta adierazleak.** Luis Guridi, Hegoa Institutua Ekonomia Aplikatua I Saila. 2017.
- 2. Garapena eta iraunkortasuna: bilakaera, bateragarritasuna eta ikuspegiak.** Iker Etxano Gandariasbeitia, Ekonomia Aplikatua I Saila, Hegoa Institutua eta EKOPOL Ikerketa-taldea, Universidad del País Vasco/ Euskal Herriko Unibertsitatea (UPV/EHU). 2017.
- 3. Garapena feminismotik aztertzen.** Yolanda Jubeto Ruiz, Mertxe Larrañaga Sarriegi, Hegoa Institutua, Ekonomia Aplikatua I Saila, Euskal Herriko Unibertsitatea UPV/EHU.
- 4. Garapenerako Lankidetzeta eta bere bilakaera.** Irati Labaien Egiguren, Jorge Gutiérrez Goiria, Hegoa Institutua, Euskal Herriko Unibertsitatea UPV/EHU.

